

Ville / village : JATSU / SATXOU Nom de la liste : Denak Jatsineutzak

Nom, prénom et contact de la tête de liste : Alain CASTAIN G

# Pacte de transition énergétique

## Pays Basque 2014 - 2020

Conscients-tes de la nécessité absolue d'agir contre le changement climatique et pour la transition écologique et énergétique, si nous sommes élus-es,

### NOTRE LISTE S'ENGAGE À :

(Cocher tout ou partie des huit engagements)

**Économiser l'espace**

(Urbanisme fiche n°3 - page 37)

L'étalement urbain a constitué la réponse apportée ces dernières années à l'augmentation de la population en Pays basque. Cette stratégie a renforcé le besoin de transports et donc la pollution ; en outre elle a continuellement réduit les espaces naturels et agricoles, mettant en danger la souveraineté alimentaire du territoire.

Dans le cadre d'une révision du document d'urbanisme communal, notre liste s'engage à donner la priorité au renouvellement urbain, à ne pas artificialiser davantage d'espaces naturels et agricoles et à utiliser au besoin le Droit de Préemption Urbain (en sollicitant si nécessaire l'EPFL).

**Développer la pratique quotidienne des modes actifs (marche et vélo)**

(Mobilité n°3 - p. 44 et Mobilité n°5 p. 46)

Il s'agit d'encourager par une communication soutenue et l'exemple donné les modes de déplacement actifs, et bien évidemment d'en assurer la faisabilité en parallèle. Pour cela notre liste s'engage à imposer la réduction de la vitesse des véhicules motorisés - développement de zones 30 km/h et zones de rencontre à 20 km/h -, à réaliser des aménagements continus et sécurisés, à poser des glissières de sécurité le long des accotements en rase campagne.

**Suivre et optimiser les consommations énergétiques** (Energie n°1 - p. 49)

La désignation d'un adjoint à l'énergie au sein de l'équipe municipale est un préalable indispensable. En suivant périodiquement ses consommations énergétiques, notre commune enclenchera une démarche vertueuse : réduire ses consommations, quantifier les économies réalisées, poursuivre l'amélioration des performances énergétiques de la commune et développer les énergies renouvelables.

**Enclencher la réhabilitation énergétique du patrimoine bâti public**

(Bâtiment n°1 - p. 56)

Il est nécessaire de privilégier la réhabilitation de l'existant à la construction neuve, celle-ci étant trop consommatrice d'énergie grise et d'espace. La réhabilitation énergétique, en plus de permettre la réduction de consommation d'énergie, sera créatrice d'emplois non délocalisables. En outre, elle sera l'occasion d'entraîner les artisans dans de nouvelles pratiques, en phase avec les exigences de la performance énergétique. Notre liste s'engage ainsi à réaliser un audit énergétique de l'ensemble des bâtiments et à initier la rénovation très performante de l'un d'entre eux au minimum, en visant l'objectif passif.

**Développer des circuits courts de proximité**

(Agriculture n°2 - p.62 - Consommation Responsable n°1 p.76)

Développer les circuits courts, c'est réduire les transports, valoriser les ressources locales, encourager le développement du territoire et de l'emploi local.

Se nourrir avec des produits locaux, de saison, de qualité et si possible biologiques est une aspiration largement partagée par la population. Notre liste s'engage à promouvoir les circuits courts,



en faisant notamment preuve d'exemplarité en ce qui concerne la restauration collective (écoles, collèges, lycées, centres de loisirs, maisons de retraite). Ainsi, ces établissements publics seront approvisionnés dès le début du mandat en produits locaux et bio, en visant à terme le 100%. Pendant la durée du mandat, nous nous efforcerons d'accompagner l'installation et la reconversion biologique d'agriculteurs.

**Souscrire à ENERCOOP pour une électricité 100% renouvelable**

*(Energie n°2 - p. 50 et Consommation responsable n°2 - p.77)*

S'abonner à ENERCOOP, d'abord pour un ou plusieurs bâtiments communaux, encourage la collectivité à s'inscrire dans le triptyque NEGAWATT : réduire les consommations énergétiques, améliorer l'efficacité énergétique, développer les énergies renouvelables. Notre commune souscrira donc à ENERCOOP.

**Améliorer la gestion des bio-déchets**

*(Déchet n°5 - p.86)*

Les biodéchets composent 40% de nos poubelles. Collectés séparément, ils peuvent produire un compost de qualité pour amender les jardins et les terres agricoles. Cette collecte-traitement sélective peut permettre d'enclencher une réflexion plus large sur la réduction de la production de déchets.

Notre liste s'engage à étudier, en lien avec l'entité compétente (Communauté de communes, SIVU ou SIVOM...), la mise en place de la collecte séparée des biodéchets en porte-à-porte et de leur compostage, ainsi qu'à fournir le matériel adéquat à la population.

**Devenir acteur de l'EUSKO**

*(Consommation responsable n°3 - p.78)*

Le développement de la monnaie locale permet d'aider à la relocalisation d'une partie de la production, réduisant ainsi les émissions de gaz à effet de serre tout en renforçant l'emploi local et la vie sociale des villages et des quartiers. Notre commune adhèrera au Collège Collectivités locales de l'association Euskal Moneta pour étudier et définir les meilleures manières de développer tout au long du mandat l'usage de l'eusko sur son territoire, auprès de ses habitants et de ses entreprises (information, communication, incitation, aides techniques, initiatives locales spécifiques).

**NOTRE LISTE S'ENGAGE ÉGALEMENT À METTRE EN OEUVRE LES AUTRES ACTIONS SUIVANTES DE LA BOITE À OUTILS MUNICIPALE CLIMAT-ÉNERGIE :**

(Merci d'indiquer les thèmes et numéros de fiches correspondantes)

THEMES	N° de fiche

THEMES	N° de fiche



Hiri / Herria : **JATSU / JATXON**

Zerrendaren izena : **Denak jatu berriago**

Zerrenda buruaren izen, abizen eta kontaktuak: **CASTAING Alain**

# Trantsizio energetikoaren ituna

## Euskal Herria 2014 - 2020

Argi dugu, aldaketa klimatikoaren kontra eta trantsizio ekologiko eta energetikoaren alde eragiteak, sekulako premiak direla, eta ondorioz, hautetsi bilakatzen bagira,

### GURE ZERRENDAK ONDOKO ENGAIAMENDUAK

#### BERE GAIN HARTZEN DITU :

(markatu zuen engaiamenduak)

**Eremu erabilpen zuhurraren lehenestea**

(Hirigintza (eta antolaketa), 3. Fitxa - 37. orria)

Azken urte hauetan, Euskal Herriak ezagutu duen biztanleriaren haunditzeari eman zaion erantzuna, hiri eremuen hedatzea izan da. Estrategia horrek garraio beharra, eta ondorioz satsadura maila, haunditu ditu; ber maneran, etengabe eremu naturalak edo laborantza lurak, ttipitu ditu, lurraldearen elikadura burujabetza arriskuan emanez.

Herriko hirigintza dokumentuen berrikusketaren karietarat, gure zerrenda engaiatzen da lehentasuna hiri-berrikuntzari emaiterat eta ez gune natural eta laborantza lur gehiago artifizializatzerat, beharrez lehentasunezko eroste-ekubidea baliatuz (EPFLaren parte hartzea galdatuz).

**Eguneroko bizian, mugikortasun modu aktiboak (oinez eta bizikletaz) garatzea**

(Mugikortasuna, 3. Fitxa - 44. orria, 5. Fitxa - 46. orria)

Mugikortasun modu aktiboen aintzinean emaitera, komunikazio indartsu baten bidez, modu hoi erabilpena sustatuz eta hautetsi gisa eredugarri izanez arlo hortan, bai eta ere, ber maneran, modu aktibo horien erabilpena praktikoki segurtatuz. Horretarako, gure zerrenda engaiatzen da motordun ibilgailuei beren abiaduraren ttipitze baten inposatzea - 30 km orduko guneak eta topaketa guneak diren 20 km orduko guneak garatuz - eraketa jarraiki eta segurtatu batzuren plantan emaiterat, txirindularien autoetarik babesteko bide bazterretako segurtasunaren haunditzerat hiriguneetarik kanpo.

**Kontsumo energetikoen segipena egitea eta optimizatzea**

(Energia, 1. Fitxa - 49. orria)

Herriko Etxeko taldean, energiaren arduratuko den axuanta izanen den kide baten aintzinetik izendatzea baitezpadako. Herriko Etxearen energia kontsumoak erregularki jarraituz, gure herriak bertutezko desmarxa abiatuko du: bere kontsumoaren ttipitzea, lortu diren ekonomien zenbatzea, energia eraginkortasun mailan diren emaitzak hobetzen segituz eta ondotik energia berriztagarriak garatuz.

**Ondare eraikiaren birgaitze energetikoa abiaraztea**

(Eraikuntzak, 1. Fitxa - 56. orria)

Baitezpadakoa da jada diren egoitzen birgaitzea lehenestea eraikuntza berrien eraikitzeari. Eraikuntza berriei energia eta eremu sobera kontsumitzen dituzte. Birgaitze energetikoak, energia kontsumoaren ttipitzeaz gain, tokiko eta ezin erbestera diren enpleguen sustatzea ahalbidetzen du. Horrez gain, ofizialeak, energia eraginkortasun emaitzak segurtatzen dituzten praktika berri batzuren plantan emaiterat, gomitatzen ditu. Gure zerrenda engaiatzen da beraz, herriko etxearen eraikin guztienez haierariko baten birgaitze energetiko eraginkorra abiatzea, energia ikuspuntutik «egoitza pasibo» helburuari buruz joanez.



**Tokiko zirkuitu laburren garatzea**

*(Laborantza, 2. Fitxa – 62. orria – Kontsumo arduratsua, 1. Fitxa – 76. orria)*

Tokiko zirkuitu laburren garatzeak, garraioen ttipitzea, tokiko baliabideen baloratzea, lurraldearen garapena eta tokiko enplegua sustatzea ditu ondorioztat.

Tokiko, sasoineko eta kalitatezko edo ahal den neurrian biologikoak diren ekoizpenekin elikatzeak jendartean sustengu zabala du. Gure zerrenda engaiatzen da zirkuitu laburren sustengatzerat, eredugarri bilakatuz sukalde kolektiboetan (eskola, kolegio, lizeo, aisaldi gune eta erretreta etxeetan). Horrela, egitura publiko horiek, agintaldiaren hastapenetik tokiko ekoizpenekin eta biologikoekin hornituak izaiten hasiko dira, %100a lortzea delarik xedea. Agintaldian, eginahalak eginen ditugu laborarien instalazioaren eta birkonbertsio biologikoaren jarraipena egiteko.

**ENERCOOP-en harpidedun bilakatzea, %100 berriztagarria den elektrizitate baten alde**

*(Energia, 2. Fitxa – 50. orria – Kontsumo arduratsua, 2. Fitxa – 77. orria)*

ENERCOOP-en harpidetzeak, lehenik herriko egoitza bat edo batzuentzat, kolektibitatea animatzen du NEGAWATT desmarxan murgiltzen: energia kontsumoak ttipitu, energia eraginkortasuna haunditu, energia berriztagarriak garatu. Gure Herriko Etxea ENERCOOP-en harpidedun bilakatuko da.

**Bio-hondakinen kudeaketa hobetzea**

*(Zaborra, 5. Fitxa – 86. orria)*

Bio-hondakinek gure zikin ontzien %40a osatzen dute. Berezik bilduak direlarik, baratze eta laborantza lurrentzat kalitatezko konposta bat emaiten ahal dute. Molde bereztuan egin den bilteta eta tratamendu horrek, zaborren ekoizpenaren ttipitzeari buruz gogoeta zabalago bat bultzatzen ahal du. Gure zerrenda engaiatzen da, kompetentzia duen erakundearekin batean (herri elkargoa, SIVU edo SIVOM...) bio-hondakinen atez ate biltzearen eta haien konpostatzearen plantan emaitzearen ikertzerat, bai eta ere horretarako jendarteak behar duen materiala egokiaren hornitzerat.

**EUSKO-aren eragile bilakatzea**

*(Kontsumo arduratsua, 3. Fitxa – 78. orria)*

Tokiko monetaren garapenak ekoizpenaren parte baten bertokiratzea laguntzen du, berotegi efektuzko gasen isurketak ttipituz eta tokiko enplegua eta herrietako eta auzoetako bizi soziala indartuz. Gure Herria Euskal Monetaren Tokiko Kolektibitateen Kolegioari kidetuko da, ikertzeko eta definitzeko, nola, agintaldiaren denboran, eusko-aren erabilpena, herritar eta enpresetan gure lurraldean garatzen ahalko den (informazioaz, komunikazioaz, motibatzeaz, laguntza teknikoaz, tokiko iniziatiba zehaztetaz).

**BER MANERAN, GURE ZERRENDA ENGAIATZEN DA KLIMA-ENERGIA ARLOKO UDAL TRESNA KUTXAKO BESTE EKINTZA HAUEN PRAKTIKAN EMAITERAT :**

*(Milesker gaiaren adierazteaz eta hari lotuak zaizkion ekintza fitxen zenbakiaren zehazteaz)*

GAIK	Fitxen zenbakiak

GAIK	Fitxen zenbakiak

